



SODIO HIDROXIDO LIKIDOAREN HORNIKETA

3. DOKUMENTUA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

1. PLEGUAREN XEDEA

Plegu honen helburua da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (BBUP) zenbait uren tratamendutegitan sodio hidroxido likidoaren horniketa kontratatzeke modua arautzea, baita horniketa horretarako kontratuak bete behar dituen baldintza teknikoak ezartzea eta kontratistaren konpromisoen irismena zehaztea ere, behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko.

Horniketak adierazitako instalazio eta formatuetan egingo direla jotzen da, baina ez da erreklamaziorik egiteko aukerarik izango kontratu honen kargura horniketa puntualak eskatzen badira beste instalazio batzuetan, beste formatu batzuetan (ontzi/bilgarri sinpleak edo GRG (IBC)) edo kontzentrazioak bestelakoak badira.

Benetako gastua Administrazioaren behar errealek baldintzatuko dute, eta, beraz, Administrazioa ez da behartuta egongo aleen kopuru jakin bat jasotzera, ezta adierazitako zenbateko osoa gastatzera ere.

Adierazitako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira, eta benetan hornitutako tonak eskainitako banakako prezioen arabera ordainduko dira.

1.800 tona erreaktibo hornituko dira, gutxi gorabehera honela banatuta:

- 1.200 tona NaOH hornituko dira Beteluriko (Arrigorriaga) EUTn, 44 tona arteko betetako zisterna-kamioietan.
- 550 tona NaOH hornituko dira Galindoko (Sestao) HUAn, 44 tona arteko betetako zisterna-kamioietan.
- 20 tona NaOH %25ean hornituko dira Galindoko (Sestao) HUAn, 1.000 eta 4.000 l bitarteko bolumenetan, zisterna-kamioietan.
- 20 tona NaOH %25ean hornituko dira Lamiaran-Aranburuko (Bermeo) HUAn, 1.000 l-ko bolumenetan, GRG ontzietan.
- 5 tona NaOH %25ean hornituko dira Bermeoko EUTn, 4.000 l-ko bolumenetan, zisterna-kamioietan; edo 1.000 l-ko GRG ontzietan.
- 5 tona NaOH %25ean hornituko dira Burgoako (Gernika) EUTn, 4.000 l-ko bolumenetan, zisterna-kamioietan; edo 1.000 l-ko GRG ontzietan.

Horniketa zisterna-kamioian egingo da (deskarga-ponpa edo konpresorea izango du zisterna presurizatzeko), edo GRGan.



2. ARAU-ESPARRUA

Hornitutako produktuak arau honetan zehaztutakoa bete behar du: “UNE-EN 896:2013 Araua. Giza kontsumorako ura tratatzeko erabiltzen diren produktu kimikoak. Sodio hidroxidoa”. Arau horretan jasotako parametroak ezpurutasun- eta azpiproduktu-edukiaren gehieneko balio gisa finkatu behar dira. Nolanahi ere, dosi normaletan ura edangarri bihurtzeko tratamenduan erabilitako produktuak ez du inolako kutsatzailerik izan behar, ur edangarriei buruzko araudian eskatutako kalitatea betetzeko (3/2023 ED).

Substantzia horrek 1907/2006 CE Erregelamenduan –substantzia eta prestakin kimikoak erregistratzeari, ebaluatzeari, baimentzeari eta murrizteari buruzkoan (REACH)– eta haren geroagoko aldaketetan bildutako baldintzak bete beharko ditu.

Garraioaren ikuspegitik, Espainiako lurraldean salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeko lanak arautzen dituen otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretuaren testu bateratua bete beharko da, baita indarrean dagoen Salgai arriskutsuen Nazioarteko Errepide Garraioari buruzko Europako Akordioa ere (ADR).

Substantzia kimikoen eta haien nahasketen erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna babesteari dagokionez, substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzko CLP Erregelamendua (1272/2008) beteko da.

Era berean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatu beharko ditu adjudikaziodunak.

Aurrez adierazitakoaz gain, enpresa adjudikaziodunak BBUPren Laneko Arriskuen Prebentziorako Sailak eskatutako betekizun guztiak bete beharko ditu. Halaber, arriskuen berariazko ebaluazioaz gain, lan-prozedura bat egin behar da, erreaktiboa deskargatzeko lanak jasotzen dituen.

Adjudikaziodunak kontratu hau indarrean dagoen bitartean indarrean sar daitekeen eta horniketari eragiten dion edozein arau-aldaketa edo -argitalpen berri bete beharko du.

Ingurumen-legeriari dagokionez, kontratua gauzatzean sodio hidroxido likidoaren hondarrik eta/edo produktu horrekin kontaktuan egon den material edo ontziren bat sortzen bada, hondakin arriskutsutzat hartuko da, eta nahitaez bete beharko dira Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta Estatuaren barnealdean hondakinak lekualdatzea arautzen duen 553/2020 Errege Dekretuan jasotako alderdiak.



3. OROKORTASUNAK

Horniketak dagokion instalazioan egingo dira, aurrez telefonoz eta/edo posta elektronikoz eskatuta, eta BBUPk ezartzen duen maiztasunarekin, haren beharren arabera.

Garraio bakoitzak emate-agiria eraman beharko du. Agiri horretan argi eta garbi adieraziko dira hornitutako produktuaren kopurua, lotearen analisi-buletina, eta garraiolariaren eta bere ibilgailuaren identifikazioa. Era berean, garraio-agiri bakoitzean argi eta garbi adieraziko da zein den instalazioak ustiatzen dituen enpresaren izena, horniketaren hartzailea den aldetik.

Presazko kasuetan izan ezik, 8:00etatik 18:00etara deskargatuko dira garraiatutako produktuak, lanegunetan. Ibilgailua adierazitako ordutegitik kanpo iristen bada, BBUPk ez du bermatzen deskarga egin ahal izango denik.

Erreaktiboa hornitzeko erritmoa BBUPren beharretara egokituko da beti, Baldintza Teknikoen Plegu honen 5.4 apartatuan adierazitakoaren arabera.

Aldian behin, eta gutxienez urtean behin, aurreko analisisia egiten denetik aurrera, hornitzaileak kontsumo-urak analizatzeko laborategi akreditatu batek egindako analisi bat entregatu beharko du. Analisi horretan adieraziko dira produktuaren aberastasuna eta UNE-EN 896:2013 araua (Giza kontsumorako ura tratatzeko erabiltzen diren produktu kimikoak. Sodio hidroxidoa) betetzeko Preskripzio Teknikoen Pleguan eskatzen diren parametroen emaitza analitikoak.



4. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

4.1 Ezaugarri teknikoak eta eskatutako ezpurutasun-maila

Sodio hidroxido likidoak ezaugarri hauek beteko ditu:

A. Produktua identifikatzea

- Izen kimikoa: Sodio hidroxidoa
- Formula enpirikoa: NaOH
- CAS¹ erregistro-zenbakia: 1310-73-2

⁽¹⁾CAS: Chemical Abstracts Service Registry Number

B. Propietate fisikoak eta kimikoak

- Gutxieneko NaOH edukia (% 50) % 48 (m/m)
- Dentsitatea, 15,6°C-tan: 1,511 gr/cm³

% 25eko kontzentrazioko horniketek gutxienez % 23ko NaOH edukia izango dute, eta 15,6 °C-ko dentsitatea 1,256 gr/cm³ baino handiagoa izango da.

Produktuak ez du dosifikazio-lanetan eragin dezakeen materialik izango eta ez du uraren kalitatea narria dezakeen eta erabiltzaileen osasuna kaltetu dezakeen substantzia mineralik edo organikorik izango.

C. Purutasun-irizpideak

Sodio hidroxido likidoaren kalitatea mintzaren fabrikazioari dagokiona izango da, hau da, ez da onartuko jatorri merkuriala edo diafragma duena.

Produktuak UNE-EN 896:2013 Arauaren 4. apartatuan adierazitakoa beteko du. Bertan, gehieneko ezpurutasun-kontzentrazio onargarriari buruz adierazten da produktuak bete behar dituela arau horren "4.3 Ezpurutasunak eta azpiproduktu nagusiak" apartatuaren 1. taulan adierazitako baldintzak. Taula honetan daude jasota baldintzak. Kontzentrazio-mugak NaOH puruarekiko adierazten dira (% 100eko masa-kontzentrazioa duena).

EZPURUTASUNAK	Muga masa-frakzioan, NaOH-ren ehunekoan (%)
Sodio kloruroa (NaCl) gehienez	2,4
Sodio karbonatoa (Na ₂ CO ₃) gehienez	0,4
Sodio kloratoa (NaClO ₃) gehienez	0,7

Arauan jasotako parametro kimikoen kontzentrazioei dagokienez, bete beharreko gutxieneko balioak 1. motako produktuari dagozkio, "4.4 Parametro kimikoak" apartatuaren 2. taularen arabera. Honako hauek dira:

PARAMETRO KIMIKOAK	NaOH-ren muga (mg/kg)
Artsenikoa (As)	2
Kadmioa (Cd)	1



Kromoa (Cr)	1
Merkurioa (Hg)	0,1
Nikela (Ni)	2
Beruna (Pb)	5
Antimonioa (Sb)	5
Selenioa (Se)	5

4.2 Salgai arriskutsu gisa sailkatzea

Sodio hidroxido likidoa ADR araudiaren mende dago, eta NBEren 1824. zenbakiarekin identifikatuta dago.

Sodio hidroxidoak 8. etiketa (korrosiboa) izan behar du, H314 arrisku-esaldiarekin kategorizatuta baitago: "Erredura larriak eragiten ditu larruazalean, baita begietako lesio larriak ere".

4.3 Ontziak identifikatzea eta etiketatzea

Materiala garraiatzen den bakoitzean identifikazio-zehaztapenak irakurtzeko moduan markatuta egon beharko dira eta gutxienez informazio hau jasoko dute:

Fabrikatzailearen informazioa:

- Izena, izen komertziala, kalitatea eta produktu-mota.
- Pisu garbia.
- Fabrikatzailearen izena eta helbidea.
- Adierazpen hau: "Produktu honek EN 896 araua betetzen du".
- Fabrikazio-data.
- Segurtasun-piktogramak.

Banatzzailearen edo merkaturatzailearen informazioa:

- Banatzzailearen izena.
- Banatzzailearen helbidea.
- Produktuaren merkataritza-marka banatzzailearentzat.

ADRren betekizunak:

Horniketa zisterna-ibilgailuan egiten bada:

- Zisternaren kodea L4BN izango da. Honako kode hauek ere onartzen dira: 4 baten ordez 10, 15 edo 21 egon daiteke; B baten ordez C edo D egon daiteke; eta N baten ordez H.

Produktuaren horniketa ontzi/bilgarri sinpleetan eta/edo GRGn (IBC) egin behar bada:

- Ontzi/bilgarri sinpleak eta/edo GRGak (IBC) homologatuta egongo dira. Plastikozko GRGak (IBC) hondoa hustuta dutenak izango dira eta babeseko metalezko egitura izango dute. Barnean plastikoa duten ontzi/bilgarri sinpleak eta/edo GRGak (IBC) fabrikatzen direnetik aurrera zenbatzen hasita bost urtera iraungi egiten dira. Ez dira onartuko iraungita dauden ontzi/bilgarri sinpleak eta/edo GRGak.
- Salgaiari dagokion NBEren zenbakia izango dute. Aurretik "UN" hizkiak jarriko dira argi eta irauteko moduan. UN 1824 inskripzioaren tamainaren altuera gutxienez 12 mm-koa izango da. 30 litro baino gutxiagoko ontzi/bilgarri sinpleak (jerrikanak) gutxienez 6 mm-ko altuera izango dute.
- ADRren 8. etiketa ontzi/bilgarri sinpleen eta GRGen (IBC) gainazaletan jarri behar da. Etiketak ez dira estalita geratuko bilgarriaren parterean edo elementuren batekin, ezta bestelako etiketekin edo markekin ere.
- GRGek (IBC) markak (UN1824 inskripzioa, 8. etiketa) kontrako bi aldeetan eraman beharko dituzte.

Fabrikatzaileak informazio hori erakusten ez badu, bidalketa itzuli ahal izango da. Hornitutako ontziak behin



eta berriz etiketatuta ez badaude, kontratua suntsiarazi ahal izango da.

4.4 Produktuaren bidaltzailea eta/edo kargatzailea

Bidaltzailea pertsona fisiko edo juridikoa da, haren aginduz eta kontura bidaltzen eta garraiatzen da salgai arriskutsua, eta hala agertzen da garraio-agirian.

Salgai arriskutsuak ibilgailu batean edo baten gainean fardeletan kargatzen dituen edozein enpresa da kargatzailea.

Zisterna bat salgai arriskutsuz betetzen duen enpresa da *“betetzailea”*.

Adjudikaziodunak (bidaltzaileak eta/edo zisterna-kargatzaile edo -betetzaileak) ADRren 1.4 kapituluan adierazitako betebeharrak bete beharko ditu.

Salgai arriskutsuen bidaltzaileak ADRren arabera garraioa egin behar du nahitaez. Bereziki, hau egin beharko du:

- a) Salgai arriskutsuak ADRren arabera sailkatuak eta garraiatuak direla ziurtatzea;
- b) Garraiolariari argibideak eta informazioa ematea eta, hala dagokionean, garraio-agiriak eta eskatutako agiri osagarriak (baimenak, jakinarazpenak, ziurtagiriak eta abar) ematea.
- c) Eraginpeko salgaiak garraiatzeko onartzen diren eta egokiak diren ontziak, bilgarriak, bilgarri handiak, ontziratu gabeko salgaiarentzako ontzi handiak (GRG(IBC)) eta zisternak soilik erabiltzea, ADRk agintzen dituen markak erabiltzea;
- d) Bidaltzeko moduari eta bidalketa-murrizketei buruzko xedapenak betetzea;
- e) Garbitu gabeko zisterna hutsak ere itxita daudela eta beteta daudenean bezalako estankotasun-bermeak dituztela zaintzea.

Bidaltzaileak beste parte-hartzaile batzuen zerbitzuak behar baditu (kargatzailea eta abar), neurri egokiak hartu behar ditu bidalketak ADRren arauak betetzen dituela bermatzeko.

Bidaltzaileak hirugarren batentzat lan egiten badu, idatziz adierazi behar dio bidaltzaileari salgai arriskutsuak direla, eta haren eskura jarri behar ditu dagozkion betebeharrak gauzatzeko behar dituen ohar eta agiri guztiak.

Bidaltzaileak garraio-agiriak egin beharko ditu, eta jasotzailea instalazio bakoitza ustiatzen duen enpresa izango da. Kontratu honen barruan, instalazio batean baino gehiagotan deskargak egiten badira, garraio-agiri bat edo xede anitzeko agiri bat prestatu beharko du. Salgai arriskutsuak garraiatzeko prestatzen dituenean, arduratu behar da panel laranja, markak eta agindutako etiketa-plakak jartzeaz, ibilgailuei (fardeletan garraiatzea) eta zisternei buruzko ADRren xedapenen arabera

Kargatzaileak betebeharrak izango ditu bereziki:

- a) Salgai arriskutsuak garraiolariari entregatu behar dizkio, baldin eta ADR hitzarmenaren arabera horiek garraiatzeko baimena badu;
- b) Salgai arriskutsuak ibilgailu batean kargatzen dituenean, zamari eta manipulazioari buruzko xedapen bereziak bete beharko ditu;
- c) Fardelak kargatzen dituenean, batera kargatzeko debekuak kontuan hartu beharko ditu, eta ibilgailuan jada dauden salgai arriskutsuak ere kontuan hartu beharko ditu.



4.5 Zisternen kargatzailea edo betetzailea

ADRren 1.4.1 atalaren esparruan, zisterna-kargatzaileak edo -betetzaileak honako betebeharrak izango ditu:

- a) Zisternak bete aurretik, haiek eta beren ekipoak egoera tekniko onean daudela egiaztatu behar du;
- b) Zisterna-ibilgailuentzako hurrengo probaren data ez dela gainditu ziurtatu behar du;
- d) Zisterna horietan garraiatzeko baimendutako salgai arriskutsuekin bakarrik bete ahal izango ditu zisternak;
- e) Zisterna betetzerakoan, salgai arriskutsuei buruzko xedapenak errespetatu behar ditu ondoko konpartimentuetan;
- f) Zisterna betetzean, betetze-indize eta -maila onargarriak edo edukieraren masa onargarria errespetatu beharko ditu, bete beharreko salgaiaren edukieraren litro bakoitzeko dagokionaren arabera;
- g) Zisterna bete ondoren, itxitura guztiak itxita daudela eta ihesik ez dagoela egiaztatu behar du;
- h) Bete beharreko salgaiaren hondakin arriskutsuak berak betetako zisternen kanpoaldean itsats ez daitezkeen arduratu beharko du;
- i) Salgai arriskutsuak garraiatzeko prestatzen dituenean, panel laranja, etiketak edo agindutako etiketa-plakak jarri behar ditu zisternei buruzko xedapenen arabera.

4.6 Garraioa

Erreaktiboa ibilgailuetan (fardeletan) eta zisterna-ibilgailuetan garraiatuko da. Ibilgailu horiek (aurrerantzean, fardeletan eta zisternan garraiatzea aipatzeko ibilgailu erabiliko da) ezarritako lege-betekizunak bete behar dituzte, baita produktuaren segurtasun-fitxatik eratorritako betekizunak ere. Kontratua indarrean dagoen bitartean garraioaren baldintzetan egindako lege-aldaketak ezin izango dira kontratuan jasalarazi.

Garraiolariek honako hauek egin beharko ditu bereziki:

- a) Garraiatu beharreko salgai arriskutsuak garraiatzeko baimenduta daudela egiaztatzea, ADRren arabera;
- b) Garraiatu aurretik, ziurtatu behar du bidaltzaileak garraiatuko diren salgai arriskutsuei buruzko ADRren informazio guztia eman duela, agiriak garraio-unitatean daudela, edo datuak elektronikoki prozesatzeko (EDP) edo datu elektronikoak trukatzeko (EDI) teknikak erabiltzen direla, paperezko agirien ordez, eta datuak eskuragarri daudela, gutxienez, paperezko agirien antzera;
- c) Ibilgailuek eta kargak akats nabarmenik, ihesik edo pitzadurarik ez dutela, ekipo-gailurik falta ez zaiela eta abar begiz egiaztatzea;
- d) Zisterna-ibilgailuentzako hurrengo probaren data ez dela igaro ziurtatzea;
- e) Ibilgailuek gainkargarik ez dutela egiaztatzea;
- f) Ibilgailuentzako plakak, etiketak eta seinaleak jarrita daudela ziurtatzea;
- g) Gidariarentzako idatzizko argibideetan adierazitako ekipoak ibilgailuaren barruan daudela ziurtatzea.

Hori guztia, hala dagokionean, garraio-agirian eta agiri osagarrietan oinarrituta egin beharko da,



ibilgailuaren eta, hala dagokionean, kargaren ikusizko azterketa baten bidez.

Hala ere, a), b), e) eta f) kasuetan, garraiolariak beste parte-hartzaile batzuek bere eskura jarritako informazio eta datuez fidatu ahal izango da.

Garraiolariak ADRren xedapenen bat urratu dela egiaztatzen badu, ez du bidalketarik egin behar dena ados egon arte.

Xedapen horietakoren bat betetzen ez bada, nahikoa arrazoi izango da karga jatorrira itzultzeko.

Adjudikazioduna (bidaltzailea eta/edo kargatzailea) erantzule zuzena izango da, bai BBUPren aurrean, bai hirugarrenen aurrean, kargatzean (bere instalazioetan) gertatutako istripuek edo gorabeherak eragindako kalteen aurrean; eta bidaltzaileak erabilitako garraiolaria produktuaren garraioarekin lotutakoaren erantzule, baita garraio bidearen edozein elementu behar ez bezala garbitzearen ondoriozko kalteena ere.

Zisternan garraiatzeari buruzko agirian, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira:

- a) Salgaiaren bidaltzailearen izena eta helbidea (garraioa kontratatzen duenarena).
- b) Salgaiaren hartzailearen izena eta helbidea (BBUPren instalazioetan ADJUDIKAZIODUNA ETA USTIATZAILA den enpresaren datuak adierazi behar dira).
- c) Garraiatutako salgaiaren izena.
- d) Salgai arriskutsuen kantitatea kilogramotan edo litrotan, baina zer den zehaztu behar da
- e) Gehienezko betetze-maila

Fardeletan garraiatzeari buruzko agirian, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira:

- a) Salgaiaren bidaltzailearen izena eta helbidea (garraioa kontratatzen duenarena).
- b) Salgaiaren hartzailearen izena eta helbidea (BBUPren instalazioetan ADJUDIKAZIODUNA EDO USTIATZAILA den enpresaren datuak adierazi behar dira).
- c) Garraiatutako salgaiaren izena.
- d) Fardelen kopurua.
- e) Fardelen mota.
- f) NBERen zenbakia duen salgai arriskutsu bakoitzaren kopuru osoa, bolumen edo masa gordinean edo garbian adierazita, kasuaren arabera, baina nola adierazten den zehaztuta.

4.7 Horniketa jasotzea eta deskargatzea

Kargatzeko eta garraiatzeko lan guztiak adjudikaziodunaren kontura izango dira. Horniketak lantegian bertan egingo dira, eta produktua dagokion biltegian utziko da.

Gidariak onartu eta lagundu egin behar die BBUPren langileei edo enpresa ustiatzailekoei instalazioetan egingo diren egiaztapenetan.

GRGak (IBC) edo bidoiak hornitzean ez da zuzenean horietatik azken biltegira deskargatuko. Aldez aurretik garraiatzeko erabilitako ibilgailuaren fardelak deskargatu badira bakarrik egin ahal izango da lan hori, betiere ontziak modu seguruan deskargatzen badira, fardelen osotasuna arriskuan jarri gabe.

Beteluriko EUTn zisternak deskargatzean, upelaren goialdera igo behar den guztietan, lehendik dagoen bizi-lerroa erabili behar da. Horretarako, gidariak arnasa izango du eta altueretako lanen prestakuntza-ikastaroa



egina izan beharko du.

BBUPri egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bidalitako produktuaren kopurua eskaeran eskatutakoa baino handiagoa bada, ez da bermatuko bidalketa oso-osorik deskargatuko denik, eta instalazioaren biltegitratze- edukiera gainditzen duen zati bat edo bidalketa osoa itzultzeko aukera egongo da; nolanahi ere, horrek ez dio hornitzaileari eskubiderik emango erreklamaziorik egiteko.

Kasu horretan, garraiolariak dakarren garraio-agiria honela aldatuko litzateke:

Helmugan deskargatutako kopurua:.....

Bidaltzaileari itzuli beharreko kopurua:.....

4.8 Ibilgailuen eta ontzien kontrola

Adjudikaziodunaren ardura da kontratuaren xede den hornidurarako erabiltzen dituen ontzi eta ibilgailu guztiek indarrean dagoen legeriak horretarako ezartzen dituen betekizunak betetzea.

Adjudikaziodunaren garraiolariak ibilgailuen beharrezko aldizkako ikuskapenak eta probak egin beharko ditu, eta, gutxienez, ibilgailu-mota horri eragiten dioten industria- eta/edo garraio-lege eta -erregelamenduek agindutakoak.

Ontziek instalazioetan dauden deskarga-baliabideetara egokitu beharko dute. Ontziren batek betekizun hori betetzen ez badu, adjudikaziodunak betekizun hori betetzen duen beste bat eman beharko du, edo behar bezala deskargatzeko baliabide egokiak eman beharko ditu.

BBUPk ez du onartuko inolako ontziren kargu edo ordainketarik. Adjudikazioduna izango da prezioa zehazteko orduan hori kontuan hartzeko ardura izango duen bakarra.

Ontzi hutsei dagokienez, adjudikaziodunak bere gain hartu behar du horiek erretiratzeko, mantentzeko eta/edo birziklatzeko ardura, indarrean dagoen legediaren arabera eta kudeatu beharreko hondakinaren ezaugarrien arabera, eta horrek ez dio BBUPri kostu gehigarriarik eragingo.



4.9 Nola jokatu larrialdietan

Hauek dira larrialdietan jarduteko moduak eta ondorio nagusiak:

- a) Ingurumen-arloko gertakaririk edo istripurik gertatuz gero, adjudikaziodunak ahalik eta lasterren emango dio horren berri kontratuaren arduradunari. Hark gertakariari buruzko idatzizko txostena eskatu ahaliko du gero (kausak eta abian jarritako zuzenketa-ekintzak).
- b) Ezin da substantzia arriskutsurik isuri saneamendu-sarera. Adjudikaziodunari lepora dakioken isuririk detektatzen bada, tratamenduaren gastuak egotziko zaizkio.
- c) Ezustekoan substantzia arriskutsuak isuriz gero, berehala jasoko dira, landare-lurzorura, saneamendu-sarera edo euri-urak husteko sarera irits ez daitezen, eta ahalik eta lasterren emango zaio gertakariaren berri BBUPri.
- d) Larrialdien ondorioz sor daitezkeen hondakinak Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira. Lotutako gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira.



5 HARRERA-KONTROLAK

5.1 Laginak hartzea eta horniketen analisia

BBUPk laginak hartzeko eskubidea dauka errektiboa deskargatzen den bitartean. Hiru lagin hartuko dira: bat BBUPk analizatzeko, eta beste biak BBUPren bulegoetan gordeko dira. Bat, gero hornitzaileak egiaztatu dezan, eta azkena, hala badagokio, batera aztertzeko.

BBUPk egindako hasierako azterketatik ondorioztatutako kalitatea eskatutakoa baino txikiagoa bada, hornitzaileari jakinarazi behar zaio, analisiaren buletina jaso eta 10 egun igaro baino lehen. Abisua jaso eta 15 egun naturaleko epea du hornitzaileak BBUPren bulegoetan utzitako laginetako bat jasotzeko. Epe hori igarotzen denean lagina jaso ez badu, suntsitu egingo da eta hornitzaileak onartu egin beharko du BBUPk emandako emaitza eta zuzentzat jo beharko du.

Lagina hartu eta konparatu ondoren adostasunik lortzen ez bada, hornitzaileak hirugarren laginaren beste analisi bat egiteko proposa dezake. Analisi hori erreferentziazko laborategi batean egingo da, alderdi biek adostuko dute eta emaitzak azken emaitza gisa onartuko dituzte. Azken azterketa horrek eragindako gastuak hornitzailearen kontura izango dira, emaitzak BBUPk adierazitako zehaztapenetatik kanpo badaude, eta, hala ez bada, BBUPren kontura izango dira. Azken saiakuntza hori behin betikoa izango da produktuaren konposizioa finkatzeko.

5.2 Pisaketa kontrolatzea

Adjudikaziodunak horniketen pisua kontrolatzeko erabiliko den baskularen homologazio- eta kalibrazio-ziurtagiriak entregatuko ditu eta indarrean egon beharko dira.

BBUPk entrega guztiak pisatu ahalko ditu.

EUTra iristean garraio-ibilgailuak pisaketa egingo du deskargatu baino lehen. Deskarga egin eta gero pisaketa baskula bereberran egingo da berrirori. Ondorioz, pisaketa berrirori arteko diferentzia BBUPren pisaketa gisa erregistratuko da.

EUTn baskularik ez badago edo baskula martxan ez badago, BBUPk hornitzailearen pisaketa-txartela onartu ahalko du edo pisaketa-kontrola BBUPren beste instalazio batean edo beste baskula homologatu eta kalibratu batean egiteko eskatu ahalko du.

Hornitzaileak ez du eskubiderik izango indemnizaziorik jasotzeko entregatzean atzerapenak gertatzen badira edo kontrol horrengatik ibilgailuak ibilbide luzeagoa egin behar izan badu.

5.3 Kalitate-kontrola

Aldean behin, eta gutxienez urtean behin, aurreko analisia egiten denetik aurrera, kontsumo-urak analizatzeko laborategi akreditatu batek egindako analisi bat entregatu beharko du hornitzaileak. Analisi horretan adieraziko dira produktuaren aberastasuna eta UNE 896:2013 araua (Giza kontsumorako ura tratatzeko erabiltzen diren produktu kimikoak. Sodio hidroxido likidoa) betetzeko Preskripzio Teknikoen Pleguan eskatzen diren parametroen emaitza analitikoak.

Lehenago adierazi den bezala, BBUPk laginak hartu eta produktua aztertu ahal izango du egoki irizten dion bakoitzean, produktuak preskripzio teknikoen pleguan agindutako kalitate-parametroak betetzen dituela egiaztatzeko, eta aldi berean lortutako bi lagin gordeko ditu egiaztapen-azterketa egiteko.



BBUPk uko egin diezaioke produktua aldatu dela, ihesak egon direla, zisterna edo ontziak kolpatu egin dela edo egoera txarrean dagoela adierazten duen ebidentziarik duen entregari, baita jasotzaileen iritziz onartezina den edo arriskugarria den beste edozein egoerari ere.

5.4 Horniketa-erritmoa

Erreaktiboa hornitzeko erritmoa dagokion BBUPren agenteak eskatutakoa izango da. Agente horrek telefonoz eta/edo posta elektronikoz eskatuko du hura hornitzeko, BBUPren beharren arabera.

Ohiko ustiapen-baldintzetan, eskaera egiten denetik 72 ordu naturalera arteko horniketa-epea onartuko da.

BBUPren agenteak eskaera bat presakoa dela adierazten duenean, 24 orduko epean eman behar da. Eskaera horiek ez dira ohikoak, eta, behar izanez gero, BBUPk ahaleginak egingo ditu eskaera horiek 10:00ak baino lehen egiteko, eta egun eta instalazio bakoitzeko bi entrega baino gehiago ez egiteko.

Eskakizun horiek betetzen ez badira, zigorrak ezarriko dira.



6 LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEA

Adjudikaziodunari dagokio zerbitzua ematen den bitartean laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak gauzatzeko beharrezko baliabideak antolatzea.

6.1 Atariko ekintzak

Lanak hasi aurretik, 31/95 Legearen 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera koordinatuko dira enpresa-jarduerak, eta lan horietarako behar diren koordinazio-bitartekoak esleituko dira, kontuan hartuta lanen arriskugarritasuna, parte hartzen duten langileen eta enpresen kopurua eta abar, 171/2004 Errege Dekretuaren 14. artikuluen arabera.

Lanak hasi aurretik, BBUPren kontratuaren arduradunaren bidez, honako hauek jarriko dira enpresa kontratistaren eskura:

- Lan-baldintzen ebaluazioa. Ebaluazio horretan enpresa kontratistaren langileek izango dituzten arriskuak jasoko dira, BBUPren instalazioetan egiten duten lanaren ziozkoak, baita arrisku horiek saihesteko edo minimizatzeko aplikatu beharreko neurriak ere.
- Lan berezietan (lan-eremuagatik edo arrisku bereziagatik), BBUPk nahitaez bete beharreko laneko jarraibide seguruak emango dizkio enpresa kontratistari.
- Larrialdi Plana edo, bestela, lana egiten duten instalazioetan larrialdiren bat gertatuz gero jarraitu beharreko irizpideak.

Kontratuaren arduradunak honako agiri hauek entregatzeko eskatuko dio enpresa adjudikaziodunaren ordezkariari:

- a) BBUPk agiriak entregatu izanaren hartu-agiria, sinatuta eta zigilatuta (aurreko apartatuan adierazitakoak)
- b) Prebentzio-antolaketaaren modalitatea.
- c) Erantzukizun zibileko aseguruia eta ordainketa egunean izatearen egiaztatzea.
- d) Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen egiaztatzea (hilero bidaliko da).
- e) Egin beharreko lanen arriskuen ebaluazioa.
- f) Lan-prozedura. Bertan xehatuko dira karga- eta deskarga-lanetako arriskuak eta prebentzio-neurriak.
- g) Azpikontratazioaren erregistroa (hala badagokio).
- h) Justifikazio-agiria, dioena arriskuen ebaluazioaren eta lan-prozeduren berri eman zaiola garraioa azpikontratatu zaion enpresari edo enpresei, hau da, BBUPren instalazioetan sartuko direnei.
- i) Lanetan parte hartzen duten langileen zerrenda.
- j) Segurtasun-arloko arduradunaren izena
- k) Prebentzioko osasuna zaintzeko erregistroa (agiri ofizialen kopia erantsita).
- l) Langileentzako prestakuntza- eta prebentzio-informazioaren erregistroa (agiri ofizialen kopia erantsita, halakorik balego)
- m) Norbera babesteko ekipamenduak entregatu izanaren erregistroa (langileek sinatuta)
- n) Produktu kimikoen segurtasun-fitxa (eraginpean jartzearen egoerak barne)

Gainera:

- a) Arrisku bereziko lanetarako berriazko prebentzio-neurriak ezarriko dira, hala badagokio.
- b) Nolanahi ere, bi enpresen aldi bereko eta baterako ekintzaren ondorioz sor edo alda daitezkeen arriskuak batera identifikatuko dira.



6.2 Lana gauzatzea

- a) BBUPk beharrezkotzat jotzen dituen aldizkako bilerak deituko ditu kontratatutako enpresen arduradunekin, kontraten prebentzio-teknikariekin, kontratuaren arduradunarekin eta BBUPren lan-arriskuen prebentzioko (LAP) sailarekin, eta aztertutako gaien akta egingo da, kontratuaren bilakaeraren arabera.
- b) Kontratistak egiaztatu behar du zerbitzua ematen duen enpresak edo langileek ezagutzen dutela Arriskuen Ebaluazioa eta Lan Prozedura, eta badituztela behar diren NBEak.
- c) Kontratistari dagokio plegu honetan jasotako lanak gauzatzeko beharrezkoak diren babes kolektiboko ekipamendu guztiak edukitzea. (Esaterako: Señaleztapen-elementuak eta abar)
- d) Aldizkako segurtasun-ikuskapenak egingo dira.
- e) BBUPren instalazioen barruan istripuren bat (bajarekin edo bajarik gabe) edo gorabeheraren bat gertatuz gero, enpresa kontratistak kontratuaren kontrol eta jarraipeneko arduradunari jakinaraziko dio BEREHALA, eta horrek, aldi berean, BBUPren LAPko sailari.
- f) BBUPren instalazioetan istripuren bat gertatuz gero, enpresa kontratistak istripua ikertuko du, eta ikerketa-txosten horren kopia bat kontratuaren arduradunari bidaliko dio, eta beste kopia bat BBUPren LAPko sailari, behar diren neurriak hartzeko.

Betelurin, 2026ko otsailaren 16an

LUIS HERNANDO GARCÍA
Responsable del Contrato
Kontratuaren Arduraduna